

Directivos de HTN, filial de Valle de Odieta, declaran mañana en los juzgados por delito ambiental

PLATAFORMA NAVARRA CONTRA LAS MACROGRANJAS :: 20/06/2023

[Eusk/Cast] En mayo de 2021 un colectivo ecologista navarro denunció ante la Fiscalía de Medio Ambiente los vertidos de purines y restos orgánicos en la ZEC Tramos Bajos del Aragón y del Arga

[Euskara]

Valle de Odietako filiala den HTN enpresako zuzendariak bihar deklaratu dute Tafallako epaitegietan, ingurumen delitua egon daitekeelakoan

2023ko ekainaren 20a.- Nafarroako Makrogranjen Aurkako Plataforma Valle de Odieta eta Hibridación Termosolar Navarra (HTN) enpresen aurkako ustezko ingurumen delituagatik aurkeztu da prozesu judizialean. Prozesu honen baitan, ekainaren 21ean, asteazkenarekin, Tafallako epaitegiak deklaratzera deitu ditu Hibridación Termosolar Navarra (HTN) enpresako zuzendariak, salatutako isurketengatik inputatuak izan daitezkeen aztertzeke. Lehenago, Valle de Odietako zuzendariak ere hartu ziren deklarazioa. Kasua aurretiazko eginbideetan dago orain.

Prozesua 2021eko maiatzean hasi zen, Nafarroako talde ekologista batek Ingurumen Fiskaltzan salatu baitzuen Caparrosoko Valle de Odieta eta Hibridación Termosolar Navarra (HTN) enpresek mindak eta hondakin organikoak isuri zituztela Aragoiko eta Argako Behe Zatietako KBEan.

Talde ekologistak aurkeztutako salaketa hura oinarri hartuta, Fiskaltzak gertakariak dokumentatzeko lanari ekin zion, eta Tafallako epaitegira igorritako txosten batean jaso ziren, gertakariok ingurumen delitua ote diren argitzeko.

Ikertzen ari diren gertakariak espezie babestuen habitatean izandako inpaktuan zentratzen dira, hala nola apoarmatu europarra, ur-arratoia, igaraba edo bisoi europarra, aipatutako Kontserbazio Bereziko Eremuan dagoen Sotillo bideko putzuan.

Akusazio partikular gisa Sustrai Erakuntza eta Greenpeace ageri dira, ez ordea Nafarroako Gobernuako Ingurumen Departamentua, nahiz eta 2021eko maiatzean Itziar Gómez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak [prentsari adierazi zion](#) Ingurumen Sailak Valle de Odieta behitegiko digestatza behar bezala ez aplikatzeagatik ingurumenaren gaineko eraginak epaitegira eramateko jarduketak hasi zituela.

Valle de Odietak salaketa eta txosten ugari jaso izan ditu jardunbide txarragatik: baimendu gabeko obrak eta instalazioak, inpermeabilizatu gabeko lixibiatuen putzuak, lixibiatuen isurketa, minden isurketa, simaurraren eta lurzoruen karakterizazio eskasa, nitrato gehiegi, digestatoaren banaketa txarra, baimenean jasotzen ez diren hondakinak, baimendu gabeko finketan, lugorri eta uztondoetan digestatza aplikatzea, gehiegizko behi-kopurua, baimendu

gabeko digestato-hodiak, digestatoa banatzeko baimendu gabeko metodoak, eskorrentiak eta putzuak, baimendu gabeko eremu naturalen luberritzea, etxaldean zein ureztatze-lursailetan beharrezko kontzesiorik gabeko uren kontsumoa...

Gertaera horiek salatzeagatik, Nafarroako 14 talde ekologista eta sozial epaitegietara eramane zituzten Valle de Odieta eta HTN enpresek, kolektibo horiek Nafarroako Parlamentuan aurkeztu zuten txosten baten edukia iraingarria eta kalumniatsua zela iritzita. Makrogranjen aurkako Nafarroako Plataforma, ohar honen bidez, auzitegiei eskatzen die ahalik eta zorrotasun handienarekin joka dezatela, kutsadura-pasarte hartan jazotako gertakari guztiak jendaurrera ateratzeko. Ingurumenarentzat hain kaltegarriak izan ziren gertakari hauen aurrean dauden erantzukizunak argitzea berebiziko garrantzia duela uste dugu.

Makrogranjen aurkako Nafarroako Plataforma

[Castellano]

Directivos de HTN, empresa filial de Valle de Odieta, declararán mañana en los juzgados de Tafalla por posible delito ambiental

20 de junio de 2023.- La plataforma en contra de las Macrogranjas de Navarra, se ha personado en el proceso judicial por posible delito ambiental contra las empresas Valle de Odieta e Hibridación Termosolar Navarra (HTN). Como parte de este proceso, el miércoles día 21 de junio por la mañana, el juzgado de Tafalla que lleva el caso ha llamado a declarar a los directivos de la empresa Hibridación Termosolar Navarra (HTN), para analizar si son imputados por los vertidos denunciados. Con anterioridad también tomó declaración a los directivos de Valle de Odieta. El caso se encuentra actualmente en diligencias previas.

Este proceso se inició a raíz de que en mayo de 2021 un colectivo ecologista navarro denunció ante la Fiscalía de Medio Ambiente los vertidos de purines y restos orgánicos en la ZEC Tramos Bajos del Aragón y del Arga por parte de las empresas instaladas en Caparroso, Valle de Odieta e Hibridación Termosolar Navarra (HTN).

A partir de aquella denuncia presentada por el colectivo ecologista, la Fiscalía comenzó su trabajo de documentación de los hechos denunciados y que se han plasmado en un informe remitido al juzgado de Tafalla, por si los hechos son constitutivos de delito ambiental.

Los hechos que se están investigando se centran en el impacto sobre el hábitat de especies protegidas como el galápagos europeo, la rata de agua, la nutria o el visón europeo, en la balsa del Camino del Sotillo ubicada en la citada Zona de Especial Conservación.

Como acusación particular figuran Sustrai Erakuntza y Greenpeace, no así el Departamento de Medio Ambiente del Gobierno de Navarra, a pesar de que en mayo de 2021 Itziar Gómez, consejera de Desarrollo Rural y Medio Ambiente, **en declaración a la prensa** aseguró que: “Medio Ambiente iniciaba las actuaciones para elevar al juzgado las afecciones medioambientales por la incorrecta aplicación del digestato de la vaquería Valle de Odieta”.

Valle de Odieta acumula una larga serie de denuncias e informes sobre malas prácticas:

obras e instalaciones no autorizadas, balsas de lixiviados sin impermeabilizar, escorrentía de lixiviados, vertido de purines, caracterización insuficiente de estiércoles y suelos, exceso de nitratos, mal reparto del digestato, residuos no contemplados en la autorización, aplicación de digestato en fincas no autorizadas, en barbechos y rastrojos, excesos en número de vacas, tuberías de distribución del digestato no autorizadas, métodos no autorizados de distribución del mismo, escorrentías y encharcamientos, roturación de zonas naturales no autorizadas, consumo de aguas sin la preceptiva concesión tanto en la granja como en las parcelas de regadío...

Por denunciar estos hechos, 14 colectivos ecologistas y sociales navarros fueron llevados ante los juzgados por las empresas Valle de Odieta y HTN, al considerar injurioso y calumnioso el contenido de un informe que estos colectivos presentaron en el Parlamento de Navarra.

La Plataforma Navarra contra las Macrogranjas pide a través de esta nota a los tribunales que actúen con la máxima rigurosidad, para sacar a la luz pública todos los hechos ocurridos en aquel episodio de contaminación. Creemos de importancia capital que se esclarezcan y depuren las responsabilidades existentes ante estos hechos tan perjudiciales para el medio ambiente.

Plataforma Navarra contra las Macrogranjas

<https://eh.lahaine.org/directivos-de-htn-filial-de>